

GIZARTE ANTROPOLOGIAKO GRADUA PRACTICUMeko PROGRAMA



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEFA – EHU

Gizarte Antropologiako Practicumeko koordinatzaileak:

Laura Muelas (laura.muelas@ehu.eus)

Miren Urquijo (miren.urquijo@ehu.eus)

Tutoreak:

Iñaki Arrieta (i.arrieta@ehu.eus)

Laura Muelas (laura.muelas@ehu.eus)

Pio Perez (pio.perez@ehu.eus)

Maria Ruiz (maria.ruizt@ehu.eus)

Luis Miguel Uharte (luismiguel.uharte@ehu.eus)

Miren Urquijo (miren.urquijo@ehu.eus)

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Metodologia
 - a. A Fasea
 - ✓ Eginkizunak: kronograma
 - ✓ Jarduerak egiteko gida
 - b. B Fasea
3. Ebaluazioa
 - a. Fakultateko tutorearen ebaluazioa
 - b. Praktiketako zentroko instruktorearen ebaluazioa

AURRETIKO GOGOETAK

- *Ikasle guztiek **landa-eguneroko** batean jaso behar dituzte Practicumeko faseetan planteaturiko jarduerak.*
- *Practicumeko **fase guztietara joan behar da** eta ez egoteak kontuan hartuko dira bukaerako ebaluaketan.*

1. SARRERA

Practicuma funtsezko gaia da ikasketa planean. Haren bidez jarduera profesionalera hurbilduko da ikaslea, Antropologia eta gizarte errealitatea ikusiz, behatuz, aztertuz eta etorkizun hurbilean bere lanbidea izango denaren inguruan gogoeta eginez.

Gizarte Antropologiako Graduako laugarren ikasturteko lehen lauhilekoan egingo da Practicum hau eta 18 ECTS kreditu ditu.

2. METODOLOGIA

- a. A FASEA: (ECTS kreditu 1 = 20 ordu aurrez aurrekoak, eta 5 bestelakoak)

Fakultatean egingo da, honako data hauetan: 2026ko irailak 16, irailak 17, urriak 21, azaroak 18, abenduak 16, eta 2027ko urtarrilak 28. Honen helburua da aurreko moduluetan zehar garatutako gaitasunak Practicumekin loturiko gaitasunekin lotzea, horren inguruan gogoetak eginez, tresnak garatuz, eta zentroaren eta eskarmentudun ikasleen aurkezpenen bidez.

Prozesu hori aurrera eramateko, honako hauek azalduko ditugu ondoren:

- ✓ Aurrez aurreko jardueren kronograma
- ✓ Jardueren edukia

EGINKIZUNEN KRONOGRAMA

AURREZ AURREKO JARDUERAK	EGUNA Irailak 16 asteazkena 14:00-18:00 Urriak 21 asteazkena 14:00-18:00 Urriak 22 Osteguna 14.00-18.00 Azaroak 18 asteazkena 14:00-18:00 Abenduak 16 asteazkena 14:00-18:00 Urtarrilak 28 osteguna 14:00-18:00	TOKIA EHU
PRACTICUMA AURKEZTEA ETA KOKATZEA	Irailak 16 asteazkena	
1. 2026-2027ko Practicumean parte hartuko duten zentroak aurkeztea; Practicumean egin behar dituzten administrazio urratsak azaltzea. Jarraipen lan taldeak osatzea	14:00-15:00	GELA 2.1
2.- Arlo desberdinen jarduera adierazgarri batzuen azalpena, antropologia aplikatuari begira	15:00-16:00	
ATSEDENA	16:00-16:30	GELAK:
1. Jarduera. Norbanako proiektuaren hasierako garapena 2. Jarduera. Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diseinua	16:30-18:00	Arrieta: 0.4 Muelas: Saileko mintegia Pérez: Bulegoa Ruiz: 2.4 Uharte: 2.5 Urquijo: 2.1
JARRAIPEN MINTEGIA (I)	Urriak 21 asteazkena	GELAK Arrieta: 0.4 Muelas:
3. jarduera. Norbanako proiektuen aurkezpena	14:00-15:30	Saileko mintegia Pérez:
ATSEDENA	15:30-15:45	Bulegoa Ruiz: 2.4
4.jarduera. Afera etikoak eta gizarte antropologia aplikatuaren deontologia profesionala	15:45-16:30	Uharte: 2.5 Urquijo: 2.1

5. jarduera. Ikasle bakoitzak bere praktika arloaren antropologia aplikatuaren artikulua bat aurkeztuko du	16:30-18:00	
EGINKIZUNAK, GAITASUNAK ETA PROFILAK: MAHAI-INGURUA	Urriak 22 osteguna	Gradu Aretoa
Mahai-ingurua antropologiako profesionalekin: migrazioaren, ondarearen eta aholkularitzaren alorreko zereginak eta profil profesionala. Eztabaida: Eta Graduaren ondoren, zer?	14.00-18.00	
JARRAIPEN MINTEGIA (II)	Azaroak 18 asteazkena	GELAK Arrieta: 0.4 Muelas: Saileko mintegia Pérez: Bulegoa Ruiz: 2.4 Uharte: 2.5 Urquijo: 2.1
6. jarduera. Praktiken landa-egunerokoaren berrikuspina eta aurkezpina, antropologia aplikatuaren erreferentzia bibliografikoarekin azken txostena prestatzeko	14:00-18:00	
JARRAIPEN MINTEGIA (III)	Abenduak 16 asteazkena	GELAK Arrieta: 0.4 Muelas: Saileko mintegia Pérez: Bulegoa Ruiz: 2.4 Uharte: 2.5 Urquijo: 2.1
7.- Txostena: helburuak, zalantzak	14:00-18:00	
3. MAILAKO IKASLEEI PRACTICUMAREN AURKEZPENAK	Urtarrilak 28 osteguna	GELA 2.1
8.-Ikasleek Practicumaren esperientziak aurkeztuko dizkiete 3. kurtsoan dauden antropologiako ikasleei	14:00-16:00	
JARDUEREN ZERRENTZA		
1. jarduera . Norbanako proiektuaren hasierako diseinua	Irailak 16, asteazkena, 16:30-18:00	
2. jarduera. Practicum gunean aurkezpina profesionala egiteko diseinua eta antzezpena	Irailak 16, asteazkena, 16:30-18:00	

3.jarduera. Norbanako proiektuaren aurkezpena	Urriak 21, asteazkena, 14:00-15:30
4.jarduera. Afera etikoak eta gizarte antropologiaren deontologia profesionala	Urriak 21, asteazkena, 15:45-16:30
5. jarduera. Tutorearekin adostutako artikulua baten irakurketa eta iruzkina, bakoitzak bere praktiketako arloari buruzkoa	Urriak 21, asteazkena, 16:30-18:00
6. jarduera. Praktiken landa-egunerokoaren berrikuspena eta aurkezpena, antropologia aplikatuaren erreferentzia bibliografikoarekin azken txostena prestatzeko	Azaroak 18, asteazkena, 14:00-16:00
Beste jarduera batzuk: Gida eta beste material batzuen irakurketa Practicum dagozkion kudeaketak burutzeko	Norbanako lana

1. JARDUERA : Norbanako proiektuaren hasierako diseinua.
HELBURUAK: ✓ Gizarte Antropologiako praktiken zerbitzuak (zentroak) kokatzea bertako egituraren maparen bidez, bere organigrama, lan arloak eta zereginak barne ✓ Zentroak betetzen dituen zereginen artean, hausnartu zeintzuk egin zenitzakete eta norbanako proiektua sortu ✓ Irudikatu profil profesionala eta bakoitzak dituen itxaropenak adierazi, bai pertsonal bai ikaste akademikoaren arloan
METODOLOGÍA Banakako lana, eta ondoren taldean adierazi 1. Norbanako proiektua diseinatu 2. Itxaropenen zerrenda 3. Batera jarri

2. JARDUERA: Aurkezpen profesionalaren diseinua
HELBURUA: ✓ Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diskurtsoa sortu
METODOLOGIA Taldeka eta banaka 1. Practicum gunean aurkezpen profesionala egiteko diseinua prestatu

2. Aurkezpen profesionalaren irakurketa

3. JARDUERA: Norbanako proiektuaren aurkezpena

HELBURUA:

- ✓ Praktiketako norbanako proiektuaren diseinua aurkeztea

METODOLOGIA

Taldean adierazi:

1. Praktiketako norbanako proiektuaren hasierako diseinuan egindako aldaketak, proiektuaren aukerak eta mugak hausnartuz, zentroko instruktorearen ekarpenen arabera eta norbanakoaren pertzepzioen arabera
2. Egindako kronograma, proiektuaren faseak eta betetzeko eginkizunak definituz

4. JARDUERA: Afera etikoak eta gizarte antropologiaren deontologia profesionala

HELBURUA

- ✓ Gizarte Antropologiaren afera etikoak eta deontologia profesionala ezagutu.

METODOLOGIA

Banakako lana eta ondoren taldean adierazi.

- 1.- ASAEK adostu zuen orientazio deontologikoa irakurri eta azaldu
- 2.- Bateratze-lana eta ebaluaketa

5. JARDUERA: Antropologia aplikatuari buruzko artikulu baten aurkezpena

HELBURUA:

- ✓ Antropologia aplikatuaren ezagutza zabaldu, bakoitzak bere arloan

METODOLOGIA

Banakako lana eta ondoren taldean adierazi

- 1.- Tutorearekin adostutako artikulu bat irakurri eta iruzkina idatzi
- 2.- Iruzkina aurkezpena taldean

6. JARDUERA: Landa-egunerokoa

HELBURUA:

- ✓ Praktiken landa-egunerokoaren berrikusi eta aurkeztu, antropologia aplikatuaren erreferentzia bibliografikoarekin, azken txostena prestatzeko

METODOLOGIA

Ikasleek practicumean egindako landa-egunerakoa aztertuko dute, mintegian aurkezteko

Gogoeta partekatua egingo da praktiketako zentroan garatutako gaitasun, trebetasun eta abilezia profesionalen inguruan, hasierako irudikimenak aztertuz eta berrikusiz

- a. II. FASEA: (17 kreditu ECTS = 425 ordu: 340 aurrez aurrekoak, eta 85 bestelakoak)

Ikasleei esleitu zaizkien zentro eta zerbitzuetan egingo da irailaren 21etik abenduaren 23ra. Banaka eta denon artean gogoeta egingo dugu praktika aztertzeko (beste profesional batzuen laguntzarekin), parte-hartzaile "behatzaile" papera izanik praktiketako zentroan eta talde bateko kide izanik Fakultatean.

I. Faseko lanetik eta fase horretan eraiki/garatutako ikaskuntza eta tresnetatik (batik bat "Egunekoa") abiatuta, Fakultateak bidali duen zentro/zerbitzuan egongo da ikasle bakoitza. Honako hauei buruzko informazioa jasoko du bertan:

Zentroa zein esparru soziokulturaletan dagoen. Testuinguru horretan zein biztanleriari zuzendua den esku-hartzea. Eskaintzen/eskatzen diren zerbitzuak/programak. Zein beharrei erantzuten dien. Profesional taldea.

Profesionalak zein eginkizun dituen gizarteko jarduera arlo horretan. Eguneroko lanean erabiltzen dituen metodologia, estrategiak eta baliabideak.

Profesionalak zein arazo praktikori egin behar dien aurre. Haren bizipen pertsonala.

Fakultatean egingo diren Jarraipen Batzordeetan ere (talde txikietan eta HEFAko tutoreak lagunduta) egiaztatu eta hausnartu egingo da informazio hau.

TXOSTENA

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko Azken Memoria egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan jardun diren azalduko eta analizatuko dute.

Honako estilo hau erabiliko da: tipografia: Times New Roman edo Arial 12; lerrotartea: 1,5; luzera: 16 orr. gehienez.

Txosten horretan hainbat alderdi landuko dira, hala nola:

1. Ikaslearen datu pertsonalak (portadan)
2. Praktiketako zentroko testuinguruaren identifikazio eta analista (3 orr.)
 - Testuinguru orokorra: identifikazio datuak, kokalekua, zentro mota, zein erakunderen menpe dagoen, ekonomia-erregimen eta zentroaren jarduera arloa erregulatzen duen araudia.
 - Zentroa kokatuta dagoen esparru soziokulturala. Zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuak, proiektuak eta programak, ezaugarriak, etab.
 - Zentroaren antolakuntza testuingurua. Zuzendaritza eta kudeaketa organoa. Lantaldea: profesionalak, funtzioak, lan metodologia. Garatzen diren sareak
 - Zentroaren beharren identifikatzea eta testuinguru jakin batean txertatzea profil profesionalari dagozkion gaitasunak erantsiz
3. Praktika prozesua eta norbanako proiektua (8 orr.)

- Praktika programaren diseinua: helburuak, metodologia, jarduerak eta erantzukizun maila
- Jarduera arloak, estrategiak eta baliabideak
- Dedikazioa eta bere gain hartu dituen eginkizunak

4. Eginiko lanaren azterketa eta hausnarketa pertsonala (3 orr.)

- Prestakuntza-ibilbidearen azterketa eta Prestakuntza Proiektuari buruzko balioespena: ikaskuntzaren emaitzak
- Gizarte Antropologiako profil profesionala: heziketa akademiko-zientifikoari buruzko gogoeta orokorra, rol profesionalari ematen zaizkion funtzioak, trebetasunak eta jarrera pertsonalak. Autopertzepzio profesionala. Lanbide barruko eta lanbide arteko harremanen esparrua
- Practicumeko prestakuntza ibilbidearen analisia eta ikaskuntzarako ekarpenak mintegietan egindako lanaren bidez
- Faktore positiboak eta hobe daitekeen elementuak

5. Esperientziaren laburpen exekutiboa (2 orr., fitxa moduan, honako atal hauekin)

- Deskribatu praktikaldian zehar **egindako lanak edo izandako ardurak** (15-20 lerro)
- Azaldu graduari zehar **ikasitakoa zertan aplikatu** ahal izan duzun praktikaldian zehar (6-8 lerro)
- Nabarmendu, zein izan den, zure ustez, antropologo gisa egin duzun **ekarpena** (hau da, egin duzun lanetik, aplikatu duzun ikuspegitik, izan duzun jarrerak... erakundeak nabarmendu duena) 2-3 lerro)
- Praktikaldiaren esperientzia bizitu et gero, posiblea ikusten duzu arlo horretan **antropologo profesionala** izatea eta bertan bizitza irabaztea? Zure ustez, zer egin beharko duzu hori lortzeko? (3-4- lerro)

7. PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

Bi atal handi hartuko dira kontuan Practicumaren ebaluazioa egiteko: Fakultatean eginiko lana jasoko da lehenbizikotan, eta praktiketako zentroan egindakoa bigarrenetan. Bi atal horiek gainditu beharko dira Practicuma gainditzeko

a. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

Fakultateko tutoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzeko edo baloratzeko garaian:

- Fakultatean antolatutako jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joan den eta zer-nolako parte hartzea izan duen, jarduera guztiak betez. **1,5 puntu.**
- Practicumaren Azken Memoria, **2 puntu:** ebaluazio irizpideak
 - o Memoriaren irizpideetara eta egiturara egokitzea: argitasuna eta koherentzia datuak aurkeztean. Unibertsitateko eskakizun maila beteko du dokumentuaren erredakzioak.
 - o Zehaztapena, zorroztasuna eta argitasuna dokumentuaren azalpenetan eta argudioak ematean. Lanbideko berezko hiztegia behar bezala erabiltzea.
 - o Eginiko praktiken inguruko azterketan eta gogoetan sakontzea.
 - o Garatutako lan arloan Gizarte Antropologiako profesionalaren eginkizunekiko egokitzapena eta konpromisoa. Profil profesionalaren azterketa eta hausnarketa karreran zehar landutako ikasketa-zientzia prestakuntzaren esparruan.

- Gogoeta egunkaria. **1,5 puntu.**

b. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA

Practicuma amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori aldez aurretik jasoko du, eta bete ondoren, Fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

Praktiketako zentroko instruktoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian:

- Aldez aurretik hitzartutako egutegiak eta ordutegiak bete dituen
- Bere zereginak bete dituen, halakotzat hartuko dira dedikazioa, erakutsitako gaitasuna, interesa eta jarrera arduratsu eta burutsua
- Talde profesionalen esparruan izandako elkarlana, ekimenerako gaitasuna.
- Ebaluazio orria betetzea

Honako hauek jasoko dira atal honetan:

- i. Praktiketako zentroan prestatzen ari den Gizarte Antropologo gisa izandako esperientziaren inguruko gogoeta
- ii. Fakultateko lan saioetan izandako parte hartzearen balorazioa
- iii. Memoria prestatzeko prozesuaren inguruko azterketa eta gogoeta, faseetako bakoitzean
- iv. Practicumen aldi honetako ikaskuntza esanguratsuenen sintesia
- v. Eranskinak: Egunkaria/Egunkariaren azterketa; dokumentu erreferentziak, beste...